



SILICIE – I. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EGOITZA
ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EMANGO DIREN
KONTABILITATE-IDAZPENEN EDUKIA

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundia

Egilea Foru Ogasuna	Data: 2019/07/15	Bertsioa: 0.0

Ediz.	Ber.	Data	Deskribapena	A(*)	Orrialdeak
0	1	2019/7/15	Hasierako bertsioa		24

(*) Ekintza: A = Erantsi; R = Ordezkatu

AURKIBIDEA

SILICIE I. ERANSKINA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.#
BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EMANGO DIREN KONTABILITATE-IDAZPENEN EDUKIA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.#
0# BERTSIOEN KONTROLA.....	7#
0.1# 0.0 hasierako bertsioa.....	7#
1# OPERADOREA	7#
1.1# ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN IFZ.....	7#
1.2# ESTABLEZIMENDUAREN JEK.....	7#
2# KONTABILITATE IDAZPENA	7#
2.1# BARNEKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA.....	7#
2.2# AURRETIAZKO IDAZPENAREN ZENBAKIA	8#
3# DATA	8#
3.1# MUGIMENDUAREN DATA.....	8#
3.2# KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA.....	8#
4# MUGIMENDUAREN DATUAK.....	8#
4.1# MUGIMENDU MOTA.....	8#
4.2# GUTXIAGOKO DIFERENTZIEI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA	9#
4.3# ZERGA ARAUBIDEA.....	9#
5# FABRIKAZIO/LORTZE ERAGIKETEN DATUAK	9#

5.1#	ERAGIKETA MOTA.....	10#
5.2#	ERAGIKETAREN ZENBAKIA.....	10#
5.3#	FABRIKAZIO UNITATEAREN DESKRIBAPENA.....	10#
5.4#	FABRIKAZIO UNITATEAREN KODEA.....	11#
6#	FROGAGIRIAK	11#
6.1#	FROGAGIRI MOTA	11#
6.2#	FROGAGIRIAREN ZENBAKIA.....	12#
7#	JATORRIA/JOMUGA.....	13#
7.1#	JATORRIA/JOMUGA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN MOTA.....	13#
7.2#	JATORRIA/JOMUGA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA....	14#
7.3#	JATORRIA/JOMUGA: SOZIJETATEAREN IZENA	14#
7.4#	JATORRIA/JOMUGA: JEK/SEED ZK.	14#
8#	ZERGA BEREZIA JASANARAZTEARI BURUZKO DATUAK.....	15#
8.1#	ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN MOTA.....	15#
8.2#	ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA.....	16#
8.3#	ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: SOZIJETATEAREN IZENA	16#
9#	PRODUKTUA	16#
9.1#	ZERGA EPIGRAFEA	16#
9.2#	EPIGRAFEAREN KODEA.....	16#

9.3#	NC KODEA.....	17#
9.4#	GAKOA.....	17#
9.5#	KOPURUA	18#
9.6#	NEURKETA UNITATEA.....	18#
9.7#	PRODUKTUAREN IZENA.....	18#
9.8#	PRODUKTUAREN ERREFERENTZIA	18#
9.9#	EROSITAKO GRADU ALKOHOLIKO BOLUMETRIKOA.....	19#
9.10#	ALKOHOL PURUAREN KANTITATEA.....	19#
9.11#	DENTSITATEA.....	19#
9.12#	BERO AHALMENA.....	19#
9.13#	ESTRAKTUAREN EHUNEKOA.....	20#
9.14#	KILOGRAMOAK - ESTRAKTUA.....	20#
9.15#	BATEZ BESTEKO PLATERAREN GRADUA	20#
9.16#	AZETIKOAREN GRADUA.....	20#
9.17#	TABAKO-PRODUKTUAREN PISU GARBIA	20#
9.18#	TABAKO-LANAREN BALIOA	20#
9.19#	TABAKO-LANAREN SALMENTA PREZIOA JENDEARENTZAT	21#
9.20#	SALMENTA-UNITATEAREN DESKRIBAPENA.....	21#
9.21#	SALMENTA-UNITATEAREN EDUKIA.....	21#
10#	ONTZIAK.....	21#
10.1#	ONTZI MOTA.....	21#
10.2#	ONTZIAREN EDUKIERA.....	22#

10.3# ONTZIEN KOPURUA	22#
11# OHARRAK	22#
II.# KONTABILITATE IDAZPENAK INDARGABETZEA.....	23#
12# OPERADOREA:	23#
12.1# ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN IFZ.....	23#
12.2# ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN JEK.....	23#
13# INDARGABETUTAKO KONTABILITATE IDAZPENA.....	23#
13.1# HIRI ADMINISTRAZIOKO ESTATUKO AGENTZIAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN IDAZPENAREN ZENBAKIA	23#
14# INDARGABETZE IDAZPENA	23#
14.1# BARNEKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA.....	23#
14.2# KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA.....	24#
14.3# INDARGABETZEKO ARRAZOIA	24#
15# OHARRAK	24#

I. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EMANGO DIREN KONTABILITATE IDAZPENEN EDUKIA

Establezimendu titularrek zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoren bidez euskarri informatikoan kontabilitate sistemaren bidez eraman behar badute, baita establezimenduek zerga berezien kontabilitatea Egoitza horren bitartez eramatea aukeratzen badute ere, bide elektronikotik emango dituzte kontabilitate-idazpenak eta, horretarako, mezu elektronikoez baliatuko dira. Horiek betetzeko eranskin honetan definitutako argibideei eta edukiari erreparatuko zaie.

0 BERTSIOEN KONTROLA

0.1 0.0 hasierako bertsioa

Dokumentua sortzea.

1 OPERADOREA

1.1 ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN IFZ

Nahitaezko datua.

Fakturazioari dagokion establezimenduko titularraren identifikazio fiskalaren zenbakia (IFZ) adieraziko da.

1.2 ESTABLEZIMENDUAREN JEK

Nahitaezko datua.

Establezimenduko titularraren jarduera eta establezimenduaren kodea (JEK) adieraziko da.

2 KONTABILITATE IDAZPENA

2.1 BARNEKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA

Baldintzatua

Establezimenduaren titularrak kontabilitate-idazpenak euskarri informatikoan kontabilitate-sistema erabiliz ematea erabakitzen badu, agindu honen 6. artikulua xedatutakoarekin bat, barneko erreferentzia zenbakia azaldu beharko du. Izan ere, sisteman kontabilitate idazpena egitean sortuko da.

Barneko erreferentzia zenbakiak establezimenduko bakarra izan behar du.

2.2 AURRETIAZKO IDAZPENAREN ZENBAKIA

Baldintzatua.

Hurrengo ustezkoetan beteko da:

- a) Aurretik baliogabetutako idazpenak ordezkatzeko idazpen berriei alta ematen zaienean.
- b) Establezimenduan produktua berriz sartzeko eragiketei dagozkien kontabilitate-idazpenetan, zerga bereziei buruzko araudiak 27. eta 38.1. artikuluetan aurrez ikusten baditu.

Bizkaiko Foru Ogasunak esleitutako idazpen-zenbakia adieraziko da: indargabetutako kontabilitate-idazpena edo egoitza elektronikoaren bidez ematean berriz sartu nahi diren produktuak establezimendutik ateratzeko erregistratutakoa.

3 DATA

3.1 MUGIMENDUAREN DATA

Nahitaezko datua.

Kontabilitate isla izango duen prozesu edo produktuen mugimendua gertatzen den data adieraziko da, UUUU/HH/EE formatuan.

3.2 KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA

Datu baldintzatua.

Establezimenduaren titularrak euskarri informatikoan kontabilitate-sistemaren bidez kontabilitate-idazpenak ematea aukeratzen badu, sisteman idazpena erregistratzen den data adieraziko da.

4 MUGIMENDUAREN DATUAK

4.1 MUGIMENDU MOTA

Nahitaezkoa.

Kontabilitate-idazpenean islatutako mugimendu-mota adieraziko da, zerga berezien kontabilitate-prozedurarako Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Egoitza Elektronikoan argitaratutako tauletan ageri diren aukeren arabera.

4.2 GUTXIAGOKO DIFERENTZIEI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Baldintzatua

Kontabilitate-mugimendu mota biltegitzeko orduan gutxiagoko diferentzia edo fabrikatzeko orduan gutxiagoko diferentzia denean beteko da.

Kontabilizatutako gutxiagoko diferentzia-mota adieraziko da, zerga berezien kontabilitate prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako tauletan aurrez ikusitako balioari jarraiki.

4.3 ZERGA ARAUBIDEA

Nahitaezkoa.

Kontabilitate-idazpeneko produktuei aplikatuko zaien zerga-araubidea adieraziko da, hurrengo aukerekin bat:

- EZ-LOTUA
- ETENGARRIA
- SALBUETSIA
- ZERGA OSOA
- ZERGA MURRIZTUA
- KANARIETAKO ZERGA

5 FABRIKAZIO/LORTZE ERAGIKETEN DATUAK

Datu-multzo baldintzatua.

Datu-multzo hau osatuko da, kontabilizatutako mugimendu-mota honakoa

denean:

- FABRIKATUA/LORTUA
- AUTOKONTSUMOA/ERABILITAKOA
- FABRIKAZIOAN GUTXIAGOKO DIFERENTZIAK

Kontabilitaterako, hidrokarburoen gaineko zergaren eremuan markatzaileak/trazadoreak gehitzeko eragiketak eta araubidez onartutako hidrokarburoen nahasketak sartuko dira.

Kontabilitaterako, alkohol eta edari eratorrien gaineko zergaren eremuan, erabat edo zati batean desnaturalizatzeko eragiketak sartuko dira.

Kontabilitaterako, ontziratze- edota botilatze-eragiketak sartuko dira.

5.1 ERAGIKETA MOTA

Nahitaezkoa

Egindako eragiketa-mota adieraziko da, zerga berezien kontabilitate prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako tauletan dagokion kodeari jarraiki.

5.2 ERAGIKETAREN ZENBAKIA

Nahitaezkoa

Enpresak eragiketari esleitutako zenbakia adieraziko da.

5.3 FABRIKAZIO UNITATEAREN DESKRIBAPENA

Baldintzatua

Establezimendu baimenduetan beteko da, hala nola, fabrikazio-unitate desberdinak dauden fabrikatan, zerga bereziei buruzko legeak 4.18 artikuluan definitutako fabrikazio-eragiketak kontuan hartuta, establezimenduan egindakoei dagokienez.

Fabrikazio-prozesuaren unitatea azalduko da, fabrikazio- edo eraldaketa-eragiketa edo autokontsumoa egin bada.

Fabrikazio edo eraldaketan desberdintasunen mugimenduetan fabrikazio-prozesuaren unitatea islatuko da, gutxiagoko edo gehiagoko diferentzia badago.

5.4 FABRIKAZIO UNITATEAREN KODEA

Baldintzatua

Establezimendu baimenduetan beteko da, hala nola, fabrikazio-unitate desberdinak dauden fabrikatan, zerga bereziei buruzko legeak 4.18 artikuluan definitutako fabrikazio-eragiketak kontuan hartuta, establezimenduan egindakoei dagokienez.

Eragiketa egin den fabrikazio-unitateari establezimenduak esleitutako kodea adieraziko da.

Fabrikazio edo eraldaketan desberdintasunen mugimenduetan fabrikazio-prozesuaren unitateari emandako kodea islatuko da, gutxiagoko edo gehiagoko diferentzia badago.

6 FROGAGIRIAK

Nahitaezko datu-multzoa.

6.1 FROGAGIRI MOTA

Kontabilitate-idazpena justifikatzeko erabilitako dokumentu edo euskarri mota adieraziko da.

Eragiketaren ondorioz zerga berezien xede diren produktuek zirkulatu behar badute, zirkulazioa babesten duen zirkulazio-dokumentua azalduko da.

Kontabilitate-idazpenaren xede den eragiketan produktuen zirkulazioa gertatzen ez bada, dokumentua, frogagiria edo kontabilitate-idazpenaren euskarria adieraziko dira.

Dokumentu-mota izendatuko da hurrengo aukerei jarraiki:

- Administrazio dokumentu elektronikoa (E-DA)
- Larrialdiko laguntza-dokumentua
- Zirkulazioaren emate-agiria
- Bidean salmenten zirkulazioari buruzko emate agiria
- Emate frogagiria
- ADB Inportazioa
- Bulego kudeatzailearen baimena
- Kontu-hartzailletza zerbitzuaren eginbidea
- Fabrikazio- edo lan-partea
- Lanaren aitortpena
- Diplomazia, kontsul edo nazioarteko erakundeen salbuespen frankiziari buruzko administrazio-ziurtagiria.
- Muztioaren aitortpena, 739/2015 ED, uztailaren 31koa, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorean nahitaezko aitortpeni buruzkoa.
- Ardoaren aitortpena, 739/2015 ED, uztailaren 31koa, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorean nahitaezko aitortpeni buruzkoa.
- Bestelakoak: kontabilitate-idazpenari euskarri izango zaion beste edozein dokumentu.

6.2 FROGAGIRIAREN ZENBAKIA

Kontabilitate-idazpenerako euskarri izango den frogagiriari esleitutako zenbakia adieraziko da hurrengo xehetasunaren arabera:

- Administrazio dokumentu elektronikoa (E-DA): Erreferentziazko administrazio kodea (ARC), barneko eta erkidegoaren barruko EMCS sisteman Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak esleitutakoa.
- Larrialdiko laguntza-dokumentua: Dokumentuari esleitutako erreferentzia zenbaki lokala.
- Zirkulazio emate-agiria: Establezimenduak zirkulazioaren emate-agiriari

esleitutako erreferentzia zenbakia.

- Bidean salmenten zirkulazioari buruzko emate agiria: Erreferentzia kode elektronikoa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak zirkulazioaren emate-agiriaren zirriborroari esleitutakoa.
- Emate frogagiria: Zerga berezien araudiak 101. artikuluan xedatutakoarekin bat, aireontzien hornidurak justifikatzeko egindako emate-frogagiriei esleitu zaien zenbakia.
- ADB Inportazioa - Inportazioaren ADBri esleitutako MRN.
- - Bulego kudeatzailearen baimena: Bulego kudeatzailearen baimen zenbakia.
- Kontu-hartzailetza zerbitzuaren eginbideari dagokion data.
- Fabrikazio- edo lan-partearen zenbakia
- Lanaren aitopenerari buruzko zenbakia
- Diplomazia, kontsul edo nazioarteko erakundeen salbuespen edo frankiziari buruzko administrazio-ziurtagiriaren zenbakia.
- - Muztioaren aitopeneraren identifikazio-zenbakia, 739/2015 ED, uztailaren 31koa, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorean nahitaezko aitopenei buruzkoa.
- Ardoaren aitopeneraren identifikazio-zenbakia, 739/2015 ED, uztailaren 31koa, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorean nahitaezko aitopenei buruzkoa.
- Beste batzuk: Beste dokumentu batzuk identifikatzea, kontabilitate-idazpenen euskarri edo frogagiri badira.

7 JATORRIA/JOMUGA

Datu-multzo baldintzatua.

Datu-multzo hau beteko da, kontabilitate-idazpenaren mugimenduarekin establezimendutik produktuak atera edo bertara sartzen badira.

7.1 JATORRIA/JOMUGA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN MOTA

Bidaltzailearen (produktuen sarrerak) edo hartzailearen (produktuaren irteerak) identifikazio-dokumentuaren mota izendatu beharko da hurrengo kodeekin bat:

Balioak	Deskribapena
1	Espainiako IFZ edo AIZ
2	Erkidegoaren barneko BEZaren IFZ
3	Beste batzuk

Kontabilitate-idazpenaren xede den mugimenduaren hartzaileak/bidaltzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badu, hori izendatuko da.

Espainiako IFZrik ez badu, baina BEZaren IFZ Espainia ez den beste Europar Batasuneko Estatu Kide baten zerga-agintaritzek esleitu badiote, titularra den BEZaren IFZ izendatuko du.

Bestelakoetan, edozein zenbaki izendatuko da, hartzailea/bidaltzailea identifika badaiteke.

7.2 JATORRIA/JOMUGA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

7.1 laukian 1 balioa jarri bada, bidaltzailearen edo hartzailearen IFZ izendatuko da.

7.1 laukian 2 balioa izendatu bada, Espainia ez den edozein estatu kidek bidaltzaileari edo hartzaileari esleitutako BEZaren IFZ adieraziko da.

7.1 laukian 3 balioa jarri bada, beste edozein zenbaki azalduko da, bidaltzailea edo hartzailea identifikatzea ahalbidetzen badu.

7.3 JATORRIA/JOMUGA: SOZIETATEAREN IZENA

Mugimenduaren hartzaileari (establezimendutik produktuak ateratzea) edo bidaltzaileari (establezimenduan produktuak sartzea) dagokion sozietatearen izena adieraziko da.

7.4 JATORRIA/JOMUGA: JEK/SEED ZK.

Indarreko araudiarekin bat, mugimendu-mota eta zerga-araubidearen arabera, hartzaileak edo bidaltzaileak JEK edo SEED zenbakia izan behar duen mugimenduetan beteko da.

Mugimenduak barneko lurralde-eremuan gertatuz gero, bidezkoa bada,

mugimenduaren hartzaileari (establezimendutik produktuak ateratzea) edo bidaltzaileari (establezimenduan produktuak sartzea) dagokion JEK zenbakia adieraziko da.

Mugimenduak barnekoak ez diren erkidegoaren lurralde eremuan gertatuz gero, mugimenduaren hartzaileari (establezimendutik produktuak ateratzea) edo bidaltzaileari (establezimenduan produktuak sartzea) dagokion SEED zenbakia adieraziko da.

8 ZERGA BEREZIA JASANARAZTEARI BURUZKO DATUAK

Datu-multzo baldintzatua.

Datuen talde hau oso-osorik beteko da, produktuak establezimendutik irteteko mugimenduen kasuan, establezimenduaren titularrak zerga berezia jasanarazi behar badu, zerga bereziei buruzko legeak 14.2. artikuluan eta zerga berezien araudiak 18. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta, gainera, etete-araubidean fabrikazioa, biltegiatzea edo eraldaketa beste baten kontura egiten bada.

Datu hauek beteko dira zerga osoa jasanarazi behar den eragiketetan, baita murriztuetan ere eta salbuespena aplikagarria den ustezko horietan ere bai.

Zerga berezia jasanaraziko zaion pertsona edo erakundearen datuak adieraziko dira, zerga bereziei buruzko legeak 14.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.1 ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN MOTA

Jasanarazten duen hartzailearen identifikazio-dokumentuaren mota izendatu beharko da hurrengo kodeekin bat:

Balioak	Deskribapena
1	Espainiako IFZ edo AIZ
2	Erkidegoaren barneko BEZaren IFZ
3	Beste batzuk

Jasanarazten zaion hartzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badu, hori izendatuko da.

Jasanarazten zaion hartzaileak Espainiako IFZrik ez badu, baina BEZaren IFZ Espainia ez den beste Europar Batasuneko Estatu Kide baten zerga-agintaritzek esleitu badiote, titularra den BEZaren IFZ izendatuko du.

Bestelakoetan, edozein zenbaki izendatuko da, jasango duen hartzailea identifika badaiteke.

8.2 ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

8.1 laukian 1 balioa jarri bada, jasango duen hartzailearen IFZ izendatuko da.

8.1 laukian 2 balioa izendatu bada, Espainia ez den edozein estatu kidek jasango duen hartzaileari esleitutako BEZaren IFZ adieraziko da.

8.1 laukian 3 balioa jarri bada, beste edozein zenbaki azalduko da, jasango duen hartzailea identifikatzea ahalbidetzen badu.

8.3 ZERGA BEREZIA JASANGO DUEN HARTZAILEA: SOZIETATEAREN IZENA

Jasango duen hartzaileari dagokion sozietatearen izena izendatuko da.

9 PRODUKTUA

9.1 ZERGA EPIGRAFEA

Baldintzatua.

Kontabilitate-mugimenduaren xede diren produktuak fabrikazio zerga berezien eremuan sartuta daudenean beteko da.

Zerga berezien xede diren produktuei dagokien zerga-epigrafea islatuko da, kontabilitate-mugimenduak aipatzen baditu eta kodea zerga berezien kontabilitate-prozeduretarako Bizkaiko Foru Ogasuneko web orrian argitaratutako taulei jarraiki emango da.

9.2 EPIGRAFEAREN KODEA

Baldintzatua.

Kontabilitate-mugimenduaren xede diren produktuak fabrikazio zerga berezien eremuan sartuta daudenean beteko da.

Zerga berezien xede diren produktuei dagokien epigrafe-kodearen gakoa islatuko da, kontabilitate-mugimenduak aipatzen baditu eta kodea zerga berezien kontabilitate-prozeduretarako Bizkaiko Foru Ogasuneko web orrian argitaratutako taulei jarraiki emango da.

9.3 NC KODEA

Nahitaezkoa

Kontabilitate-mugimenduaren xede den produktuari dagokion NC kodea, 2658/1987 (CEE) Araudian, uztailaren 23koan, muga-zergen nomenklatura eta estatistikari nahiz aduana-zerga erkideari buruzkoan, xedatutakoa adieraziko da, I. eranskineko indarreko idazkerarekin bat.

Alkohol eta edari eratorrien gaineko zergaren eremuan sartutako produktuen kasuan, NC kodea 8 digiturekin azalduko da.

Hidrokarburo, ardo eta edari irakin eta bitarteko produktuen gaineko zergaren eremuan sartutako produktuen kasuan, NC kodea 6 digiturekin azalduko da.

Garagardoaren eta tabako-lanen gaineko zergaren eremuan sartutako produktuen kasuan, NC kodea 4 digiturekin azalduko da.

Fabrikazio-zerga berezien eremuan sartutako produktuen kasuan, NC kodea 8 digiturekin azalduko da.

Alkohol eta edari alkoholikoen gaineko zergen eremuan jarduten duten establezimenduetan kontabilitate-idazpena epigrafe eta epigrafe-kode bera duten proiektuei buruzkoa bada, baina NC kode desberdinak baditu eta aginduaren I. eranskineko 9.8. atalean definitutako produktu-erreferentzia bakarra badu, "HAINBAT" kodea betez adieraziko da gorabehera.

9.4 GAKOA

Baldintzatua.

Kontabilitate-mugimenduaren xede diren produktuak zerga berezien kontabilitate-prozeduretarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako produktuen gakoei buruzko tauletan sartutako produktuak direnean beteko da.

Zerga bereziei buruzko legeak 32. artikuluan aipatzen dituen bitarteko produktuen kasuan, gainera, egindako produktuaren gakoa sartuko da. Hori zerga berezien kontabilitate-prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako taulatan dago.

9.5 KOPURUA

Nahitaezkoa

Kopurua aipatuko da, produktuari dagokion epigrafe-kodearen arabera, zerga berezien kontabilitate prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian jasotako tauletan aurrez ikusitako neurketa-unitatean adierazita.

Zerga bereziaren zerga-oinarria produktuaren bolumenak osatzen duen produktuetarako, kopurua zehazteari begira, zergaren oinarria definitzeko tenperaturarekin bat adieraziko da.

9.6 NEURKETA UNITATEA

Nahitaezkoa.

Kontabilitate-idazpenaren xede den produktuaren arabera, zerga berezien kontabilitate prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian jasotako tauletan aurrez ikusitako neurketa-unitateen kodea adieraziko da.

9.7 PRODUKTUAREN IZENA

Nahitaezkoa

Kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuei esleitutako izena azalduko da.

9.8 PRODUKTUAREN ERREFERENTZIA

Aukerakoa

Establezimenduak kontabilitate-idazpenaren xede den produktuari esleitutako produktu-erreferentziaren kodea edo zenbakia adieraziko da.

9.9 EROSITAKO GRADU ALKOHOLIKO BOLUMETRIKOA

Baldintzatua.

Kontabilizatutako produktuak alkohol edo edari alkoholikoen gaineko zerga berezien xede badira, 20 °C-ko tenperaturan 100 produktu-bolumenetan tenperatura berean dagoen alkohol puruaren bolumen-kopurua erregistratuko da. Adierazteko bi hamartar erabiliko dira.

9.10 ALKOHOL PURUAREN KANTITATEA

Baldintzatua.

Kontabilizatutako produktuak alkohol eta edari eratorrien gaineko zergaren xede badira, duen alkohol puruaren kantitatea erregistratuko da eta hiru hamartarrekin adieraziko da.

9.11 DENTSITATEA

Baldintzatua.

Alkohola fabrikatzean, kontabilitate idazpenaren xede diren produktuak zerealeetatik edo beste substantzia amilazeo edo azukredun batzuetatik lortutako muztioak edo salda irakinak badira eta lehengai modura erabiltzen badira, dentsitatea adierazko da kg/l unitatetan azalduta eta hiru hamartar erabiliz.

Garagardoa fabrikatzean, kontabilitate idazpenaren xede diren produktuak lehengai modura erabilitako muztioak badira, dentsitatea adierazko da kg/l unitatetan azalduta eta hiru hamartar erabiliz.

Kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuak hidrokarburoak direnean eta horietan zerga bereziaren zerga-oinarria produktuaren bolumenak eratzen duenean, 15 °C-tan dentsitatea sartuko da, hiru hamartarrekin kg/l unitatean adierazita.

9.12 BERO AHALMENA

Baldintzatua.

Kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuak hidrokarburoak direnean eta horietan zerga bereziaren zerga-oinarria produktuaren bero-ahalmenak eratzen duenean, tonako bero ahalmen gordina azalduko da, bi hamartarrekin gigajouletan adierazita.

9.13 ESTRAKTUAREN EHUNEKOA

Baldintzatua.

Garagardoa fabrikatzean kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuak lehengaiak direnean, estraktu naturalaren ehunekoa adieraziko da eta kalkulatzeko estraktuaren kilogramoak eta lehengaiaren kilogramoak zatituko dira. Adierazteko bi hamartar erabiliko dira.

9.14 KILOGRAMOAK - ESTRAKTUA

Baldintzatua.

Garagardoa fabrikatzean kontabilitate-idazpenaren produktuak lehengaiak direnean, horietan dagoen estraktu naturalaren kantitatea adieraziko da kilogramotan eta hiru hamartarrekin.

9.15 BATEZ BESTEKO PLATERAREN GRADUA

Baldintzatua.

Garagardoa fabrikatzean kontabilitate-idazpenaren produktua irakinera pasatako muztioa edo egiten ari den garagardoa denean, batez besteko plateraren gradua adieraziko da bi hamartarrekin.

9.16 AZETIKOAREN GRADUA

Baldintzatua.

Kontabilitate-idazpenaren produktua ozpina denean, azetikoaren gradua adieraziko da: 100 milimetro ozpinean azido azetikoaren gramoak, bi hamartarrekin.

9.17 TABAKO-PRODUKTUAREN PISU GARBIA

Baldintzatua

Tabako-lanen gaineko zergaren xede diren produktuak izanez gero, bi hamartarrekin kilogramotan pisu garbia adieraziko da. Pisuan % 14ko hezetasun-edukian oinarrituko da.

9.18 TABAKO-LANAREN BALIOA

Baldintzatua

Tabako-lanen gaineko zergaren arabeko produktuak badira, bi hamartarrekin eurotan balio orokorra izendatuko da eta Penintsulako edo Balear Uharteetako tabako- nahiz tinbre-dendatan tabako-lan bakoitzak jendearentzat duen salmenta-prezioaren arabera kalkulatu da. Prezio horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak daude.

9.19 TABAKO-LANAREN SALMENTA PREZIOA JENDEARENTZAT

Baldintzatua.

Kontabilizatutako produktuak tabako-lanen gaineko zergaren xede badira, Penintsulako edo Balear Uharteetako tabako- nahiz tinbre-dendatan tabako-lan bakoitzak jendearentzat duen gehieneko salmenta-prezioa adieraziko da.

9.20 SALMENTA-UNITATEAREN DESKRIBAPENA

Baldintzatua

Kontabilizatutako produktuak tabako-lanaren gaineko zergaren xede direnean, salmenta-unitate bakoitzaren deskribapena izendatu beharko da, zerga berezien kontabilitate-prozedurarako Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako tauletan aurrez ikusitako salmenta-unitate moten arabera.

9.21 SALMENTA-UNITATEAREN EDUKIA

Baldintzatua

Kontabilizatutako produktuak tabako-lanaren gaineko zergaren xede badira, salmenta-unitate bakoitzean dagoen kantitatea izendatuko da. Zigarro, zigarreta, zigarro txiki edo tabako xehea ala gainerako tabako-lanak izanez gero, gramoen kopurua adieraziko da bi hamartarrekin.

10 ONTZIAK

10.1 ONTZI MOTA

Baldintzatua

Kontabilizatutako produktuak alkohol edo edari alkoholikoen gaineko zerga berezien xede badira, produktu bukatuetarako ontzi-motaren kodea adieraziko da. Bizkaiko Foru Ogasunaren web orrian argitaratutako tauletan zehaztutako ontzi-moten arabera kontabilizatuko dira.

10.2 ONTZIAREN EDUKIERA

Aukerakoa.

Kontabilizatutako produktuak alkohol edo edari alkoholikoen gaineko zerga berezien xede badira, ontziaren edukiera litrotan adieraziko da hiru hamartarrekin.

10.3 ONTZIEN KOPURUA

Aukerakoa

Kontabilizatutako produktuak alkohol edo edari alkoholikoen gaineko zerga berezien xede badira, kontabilitate-idazpenari dagokion eragiketaren ontzien kopuru guztia adieraziko da.

11 OHARRAK

Aukerakoa.

Eremu librea, kontabilizatutako idazpenaren azalpen-datu edo -informazioa aipatzeko.

II. KONTABILITATE IDAZPENAK INDARGABETZEA

Kontabilitate-idazpenak Bizkaiko Foru Ogasunari elektronikoki eman bazaizkio, indargabe daitezke, administrazioak likidazio egokiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen eskubidearen preskripzio-epaia iraungitzen ez den bitartean. Mezu elektronikoa bat transmitituko da Egoitza elektronikoa erabiliz eta honako datuak izango ditu:

12 OPERADOREA:

Nahitaezko datu-multzoa.

12.1 ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN IFZ

Establezimenduko titularraren identifikazio fiskalaren zenbakia (IFZ) adieraziko da.

12.2 ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN JEK

Establezimenduari esleitutako jarduera eta establezimenduaren kodea.

13 INDARGABETUTAKO KONTABILITATE IDAZPENA

13.1 HIRI ADMINISTRAZIOKO ESTATUKO AGENTZIAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN IDAZPENAREN ZENBAKIA

Nahitaezkoa

Egoitza Elektronikoaren bidez eman zen unean Bizkaiko Foru Ogasunak baliogabetutako kontabilitate-idazpenari esleitutako zenbakia.

14 INDARGABETZE IDAZPENA

14.1 BARNEKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA

Baldintzatua

Establezimenduaren titularrak kontabilitate-idazpenak euskarri informatikoan kontabilitate-sistema erabiliz ematea erabakitzen badu, agindu honen 6. artikulua xedatutakoarekin bat, baliogabetzeko kontabilitate-idazpenari establezimenduaren euskarri informatikoari dagokion kontabilitate-sisteman esleitutako erreferentzia-zenbakia adieraziko da.

14.2 KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA

Baldintzatua

Establezimenduaren titularrak kontabilitate-idazpenak euskarri informatikoan kontabilitate-sistema erabiliz ematea erabakitzen badu, agindu honen 6. artikulua xedatutakoarekin bat, indargabetzeko idazpena establezimenduaren kontabilitate-sisteman erregistratzen den data adieraziko da.

14.3 INDARGABETZEKO ARRAZOIA

Nahitaezkoa

Indargabetzeko arrazoia beteko da eta hurrengo taulan ageri direnetatik dagokion balioa azalduko da:

BALIOA	DESKRIBAPENA
1	ZENBAKIZKO AKATSA
2	IDAZPEN BIKOIZTUA
3	BESTE ARRAZOI BAT

15 OHARRAK

Aukerakoa

Eremu librea, azalpen- ala argibide-datu edo -informazioa aipatzeko.